



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 26a

133. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Europar Batasunean nekazaritza-politika bateratuari eta merkataritza-itunei buruz hartzen ari diren erabakiak direla-eta Nafarroako lehen sektoreari buruzko politika orokorrari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzeta foroa bultza eta arautu dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzera bermatzeko xedez. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da albait lasterren azter ditzan prezioak igo izateko arrazoiak, eta laster esku har dezan igoera hori kontrolatzeko eta ezerezteko. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioa premiatzen da izaera egonkorra eman diezaion Transfugismoaren aurkako Itunaren Jarraipen Batzordeari. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Ezkaba mendiko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren ingurumen-adierazpen estrategikoari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei 18 urte betetzen dituztenean ematen zaien arretari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzearen gaineko informazio-kanpaina abian jartzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Gizarte Zerbitzuetakako Zorroko prestazioetarako erantzute-epeei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Aire zabaleko instalazioetan egiten diren Nafarroako kirol lehiaketetako ikusleen presentziari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).

- Galdera, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Parlamentuaren parean jarritako LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Iruzur fiskalaren aurkako borrokarako langileak kontratatzeke aurrekontu-partida ez betetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa idazteko kontratuaren lizitazioari buruzkoa. Akats zuzenketa (10. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Luzatzea Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzen baita. (11. or.).
- Araua, COVID-19ak haurrengan duen eraginari buruzko Osoko Bilkura monografikokoak. (12. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Europar Batasunean nekazaritza-politika bateratuari eta merkataritza-itunei buruz hartzen ari diren erabakiak direla-eta Nafarroako lehen sektoreari buruzko politika orokorrari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko interpelazioa, Europar Batasunean nekazaritza-politika bateratuari eta merkataritza-itunei buruz hartzen ari diren erabakiak direla-eta Nafarroako lehen sektoreari buruzko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Interpelazioa, Europar Batasunean nekazaritza-politika bateratuari eta merkataritza-itunei buruz hartzen ari diren erabakiak direla-eta, departamentuak Nafarroako lehen sektoreari buruz daraman politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da albait lasterren azter ditzan prezioak igo izateko arrazoiak, eta laster esku hardezan igoera hori kontrolatzeko eta ezerezteko.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetu dadin María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita albait lasterren azter ditzan prezioak igo izateko

arrazoiak, eta laster esku hardezan igoera hori kontrolatzeko eta ezerezteko. Mozioa 2020ko maiatzaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00058).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzat foroa bultzatzea eta arautu dezan Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzat foroa bultzatzea eta arautu dezan Nafarroako Udalen

eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez. Mozioa 2020ko urriaren 9ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00108).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioa premiatzen da izaera egonkorra eman diezaion Transfugismoaren aurkako Itunaren Jarraipen Batzordeari.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioa premiatzen baita izaera egonkorra eman die-

zaion Transfugismoaren aurkako Itunaren Jarraipen Batzordeari. Mozioa 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/MOC-00133).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ezkaba mendiko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren ingurumen-adierazpen estrategikoari buruzkoa.*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko galdera, Ezkaba mendiko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren ingurumen-adierazpen estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Berriki jakin dugu Ingurumeneko Departamentuak Ezkaba mendiko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren ingurumen-adierazpen estrategikoa eman duela; beraz, onespena hurbilago dugu. Horiek horrela, zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak bateragarri egiteko mendiaren balio naturalak eta haren erabilera sozial eta aisiarakoak?

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei 18 urte betetzen dituztenean ematen zaien arretari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei 18 urte betetzen dituztenean ematen zaien arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kon-

tseilariak Eskubide Sozialetako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako Departamentua nola ari da bermatzen bakarrik dauden adingabe atzerritarrei 18 urte betetzen dituztenean ematen zaien arreta?

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzearen gaineko informazio-kanpaina abian jartzeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzearen gaineko informazio-kanpaina abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, aho batez onetsi zuen Navarra Sumak aurkeztutako honako mozio hau:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Informazio kanpaina bat egin dezan Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzeari dagokionez, orokorrean Nafarroako gizarte osoari zuzenduta, bereziki enpresaren sektoreari.

2. Ukitutakoek izan litzaketen auziak artatzeko kanalak gaitu daitezten.

3. Egokitzen horren jarraipena egin dadin”.

Aipatu kanpaina ez zen 2019an egin eta ez da 2020an eginen.

Noiz jarriko da abian kanpaina hori?

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Zorroko prestazioetarako erantzute-epeei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Gizarte Zerbitzuetako Zorroko prestazioetarako erantzute-epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordea izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Eskubide Sozialetako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako kontseilariak batzordean adierazi zuenez Gizarte Zerbitzuen Zorroa aldatu zen Zerbitzuari Lotutako Prestazioaren hartzaileei toki publiko bat 6 hilabeteko epean emateko konpromisoa kenduz, aipatu konpromisoa ez zelako betetzen. Horiek horrela, kontseilariak Zorroa aldatzeko asmorik al du erantzunaren epeak betetzen ez dituen prestazio guzietan, erantzuteko epeak zabalduz?

Iruñean, 2020ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Aire zabaleko instalazioetan egiten diren Nafarroako kirol lehiaketetako ikusleen presentziari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Aire zabaleko instalazioetan egiten diren Nafarroako kirol lehiaketetako ikusleen presentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Kultura eta Kiroleko kontseilariak Kultura eta Kiroleko Batzordearen hurrengo bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer irizpide eta atalase erabili dira ikusleen presentzia ekiditeko aire zabaleko instalazioetan egiten diren lehiaketetan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko galdera, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako 660 lanposturen lan-eskaintza publikoa dela-eta?

Iruñean, 2020ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, Parlamentuaren parean jarritako LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkezturiko galdera, Parlamentuaren parean jarritako LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Zein izan zen aginte-katea, hau da, nondik etorri zen agindua, zeinaren ondorioz bi foruzainek kendu baitzuten joan den azaroaren 11n Parlamentuaren aurrean zegoen LKN hiri-artistaren kartela?

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Iruzur fiskalaren aurkako borrokarako langileak kontratatzeke aurrekontu-partida ez betetzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Iruzur fiskalaren aurkako borrokarako langileak kontratatzeke aurrekontu-partida ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta idatziz erantzun dakion:

Behean sinatzen duen parlamentariak egindako galdera bati erantzunez azaldu da ondotik

datorren partida ez dela bete eta aurreikusten dela ez dela beteko gelditzen den ekitaldi-epetan zehar.

Partida:

– 150000 17000 1211 923400 (E) Lanpostu hutsak betetzeko kontraturiko langileen ordain-sariak, zeinaren behin betiko kreditua 78.551 eurokoa baita.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Zergatik utzi du Departamentuak aurrekontuko partida hori bete gabe?

–Gobernuaren ustez egon al da justifikazioen bat iruzur fiskalaren aurkako borrokarako ziren langile horiek ez kontratatzeke?

– Uste al du aurrekontu-partida hori –zeina aurrekontuan sartu baitzen aurrekontua onesteko izapide parlamentarioan onetsitako zuzenketaren bidez– lehenetsi beharko litzatekeela hura betetzera, hain zuzen ere Parlamentuaren berriazko agindua delako?

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa idazteko kontratuaren lizitazioari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da 2020ko azaroaren 16ko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakian, zeinaren bidez onartzen baitzen Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa idazteko kontratuaren lizitazioari buruzko ahozko galderaren izapidetzea. Aipatu galdera, Navarra Suma talde parlamentarioko Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztua (10-20/POR-00388), 2020ko azaroaren 17ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona hemen zuzenketa:

Hirugarren puntuan, honako hau dioen tokian: “Hurrengo Osoko Bilkura batean izapidetzea”, honako hau behar du: “Lehendakaritzako, Berdin-

tasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Bartzordean izapidetzea”.

Laugarren puntuan, honako hau dioen tokian: “Nafarroako Gobernuari igortzea galdera hori, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako”, honako hau behar du: “Nafarroako Gobernuari igortzea galdera hori, Legebiltzarreko Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Luzatzea Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzen baita.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko azaroaren 18an argitaratu da 59/2020 Foru Agindua, azaroaren 16koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez luzatu eta zati batean aldatzen baita Osasuneko kontseilariaren urriaren 21eko 57/2020 Foru Agindua, berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu zituen Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz. Lehenago ere aldatua zen aipatu agindua, azaroaren 4ko 58/2020 Foru Aginduaren bidez. Beraz, beharrezkoa da esparru parlamentarioan berriro ere luzatzea 2020ko urriaren 26ko Erabakiaren bidez —urriaren 29an egindako aldaketa barne— harturiko gomendio eta neurriak, zeinak eritasunaren transmisioa gutxitze aldera eta laguntzeko betebeharrak emandako errekerimendu orokorrari kasu egite aldera hartu baitziren. Neurri horiek dakarte, besteak beste, barneko gune itxietan baimenduriko gehienezko edukiera gutxitzea eta Parlamentuz kanpoko jarduera presentzialak bertan behera uztea, nahiz eta balizko salbuespenak kontuan hartzen diren. Neurri horiek aldi baterako aurreikusi dira, 2020ko abenduaren 9ra arte hain zuen.

Horiek horrela, honako HAU ERABAKI DA:

1. Abenduaren 9ra arte luzatzea Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakia —2. puntutik 4. puntura bitartekoak barne—, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzen baita, salbu eta osoko bilkuretara bertaratzeari dagokiona (bigarren apartatua: 2. puntua eta 3. puntuko 2. eta 3. paragrafoak).

2. Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko Erabakiaren bosgarren apartatua aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

“Bosgarrena. - Etendako jarduerak.

1. Bertan behera gelditzen dira Parlamentuz kanpoko jarduera presentzialak, salbu eta Legebiltzarreko egoitzaren fatxadaren argiztatzeak eta Mahaiak erabakitzen dituen gainerakoak, eledunen Batzarrari entzun ondoren. Edonola ere, bermatu beharko da Parlamentuko areto bakoitzaren gehienezko edukiera betetzea, metro eta erdiko pertsonen arteko distantzia errespetatzea eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ezartzen dituen higie- eta segurtasun-neurri guztiak betetzea.

2. Osoko Bilkuretara gonbidaturiko publikoari buruz honako hau aintzat hartu beharko da:

Bertaratzen ahal diren gehienezko kopurua ezarriko da, kontuan hartuta ezin izanen dutela gainditu eremu horretan baimenduriko edukieraren % 30.

Bertaratzen direnek eserita egon beharko dute eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia bermatu beharko dute.

Distantzia-irizpideak betetzen ez dituzten eserlekuak baliogabetuko dira.

Beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartuko dira sarrera-irteerak era mailakatuan egin daitezkeen.

3. Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeari eta Nafarroako Gobernuaren Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Zerbitzuari eskatzea txostena egin dezaten Navarra Suma talde parlamentarioaren proposamenari buruz, honakoa hau: Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzea, osoko bilkuretara bertaratzeari dagokionez (bigarren apartatua: 2. puntua eta 3. puntuko 2. eta 3. paragrafoak).

4. Erabaki hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2020ko abenduaren 9ra arte irau-

nen du, eta egoera epidemiologikoaren arabera Mahaiak zehazten ahalko du horren luzapena, aldaketa edo bertan behera uztea.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Arauk, COVID-19ak haurrengan duen eraginari buruzko Osoko Bilkura monografikokoak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. COVID-19ak haurrengan duen eraginari buruzko eztabaida antolatzeko honako arau hauek onestea:

"1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duten talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunen mintzaldiarekin, eta horrek, gehienez ere, hogeita minutu iraunen du.

Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, iraupen berarekin.

2. Mintzaldi horiek bukatuta, bilkura ordu eta erdiz etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia izanzen dutenak. Proposamenak, egiaztapen elektronikoarekin eta zenbatuta, posta elektronikoaren bidez bidali beharko zaizkio Zerbitzu Orokorretako burutzari bilkura eten eta hamabost minutuko epean, eta horrek, bere aldetik, Mahaiko kideei emanen dizkie.

Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, Mahaiak proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen edo foru parlamentarien elkartearen eledunei helaraziko dizkie, zeinek ordubete izanen baitute proposamenak aztertzeko.

3. Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerrari jarraituz, eta eledunek beren iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteak aurkezturikoen inguruan.

Eztabaidan zehar, lehendakariak izapidera onartzen ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo talde parlamentariorik edo foru parlamentarien elkarterik aurka azaltzen ez bada onartzen ahalko dira zuzenketa horiek.

4. Proposamenen eztabaida amaiturik, 1. arauan adierazi aurkezpen-hurrenkerrari jarraituz bozkatuko dira. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira".

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen (10-20/CDP-00009).

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias